

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

161n. Zenbakia Epailla-Martia
1992



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



GAZTAÑAGA'TAR JESUS (G.B.)

(Ezkerretik lenengoa)

**GITXIEN USTE GENDUANEAN,
AITAREN ETXERA JOAN JAKU**

(Ondoan Arrinda'tar Anes eta Onaindia'tar Alberto)

Bazkide ta adiskide begikoak:

1991ngo. Azila'k 11 gnean. gure Elkartea'k iru urte bete zitun. Inork ere ez genun uste, iru urte igaro ta oraindik EUZKERA JATORRA'ren aide lanean jarraitu bear izango genukenik, baiña alaxe da eta emen gaituzute gure alegintxo egiten.

Ezta naikoa, ordea, Elkartea sortu izana, ez noski! Zerbait iritxi nai ba'degu, bazkide eta adiskide guziok lana egin bearrean zerate, guzion artean iritxi bai genezake zerbait!

Gogoratu Sabin'ek esandako itz auk:

"Zuen Aberria'ren izkuntza maite ez ba'dezute, ez dezute Aberrua ere maite.

Zuen Aberria maite ez ba'dezute, ez dituzute zuen Arbasoak maite.

Zuen seme-alaba ta billobak gaitzeztea nai al dezute?"

Urteko Batzar-Orokorra, oitura degunez, datoren urteko, 1992ngo. Epaila'n izango da. Aurreko bi Batzarrak Donosti'n egin ditugu, baiña, bazkideok nun egin adieraztea ona litzake, ezpaigera denek donostiarrak, gipuzkoar, arabar napar eta bizkaitarrak ere baizik.

Urrestarazu'tar Andoni'k (Umandi) idazti berria argitaratu du. "Euzkera'ren ebazkizun aundia - El gran problema del Euzkera" izeneko idaztia, euzkeraz eta erderaz.

Elkartea'ren aolkua, idazti au guziok irakurtzekoa da. Urrestarazu'tar Andoni'k azaltzen dun kezka gurea egin dezagun, ona zatitxo bat:

"Labur, idazti au nire barne sakonetik sortzen zaidan deydardirigarri ta ozena izatea nai izango nuke, nire anai euzkaldun guztiai zuzenduta, beren biziaren elburu nagusia bezala euzkeraren ikaste ta erabiltzea benetan onartu dezaten, Euzkadi gure Erri'aren euzkal bizia euste sakon eta zabalena burutzeko, bear bearra, ezinbestekoa dalako".

Au gertatu ez dedin, Euzkalkien- Euzkera jatorra ber-eskuratu bear degu. Euskaltzaindia, 1919-9-12'an, sortu ta bereala, asi zan Euzkera batzeko bidean, baiña gauzak kirian-kirian (en orden) eginaz.

Lan au aurrera eramateko zuten egitasmoa ikus-teko, "Kamaraka" k idatzitako "La unificacion del euskera" izeneko idaz-lana irakurri. "Alderdi"n, 256-257 gn. zenbakian argitaratu zan.

Beste idazti irakurgarri artean, beste aukerak kurtzera bultzatzen zaituegu:


Latiegi'tar Bixente ta Oñatibia'tar Dunixi'ren "Euskaltzaindia, el batua y la muerte del euskera"

"Umandi'ren "Euzkera'ren Ebazkizun aundia / El gran problema del Euzkera".

Aldizkari au Eguberri, Urte Berri jayetartuko dezutenez, Jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

1992'gnean. "EUZKERA BAT, baiña EUZKALKI-EUZKERA jatorra" esaldia egin biurtu dezagun, berriz ere, laguntza eskatzen dizuegu.

ARBASOEN IZKUNTZAZALEAK



GAZTAÑAGA'TAR JESUS ADISKIDEA

(G.B.)

BARRI SAMIÑA

Noizean bein zurtz eginda izten gaituen barriak arzen doguz eta olakoa izan zan gau aretan Zubikarai 'tar Augustin'ek emon eustan barria: Gure lankide ta adiskide genduan Gaztañaga'tar Jesus il zala.

Bat-batean, lanerako bidea artzeko berebilla Qertu eukala, agurrik be egin barik, isil-isillik joan jaku~gure Jesus.

Samintasuna be alkar-banatu egin bear izaten da-ta, Bizkai'ko adiskideai barria emon bear izan neutsen: Bilbao 'tar Jon Erramun'eri eta Zubiri 'tar Iñaki'ri. Baita, mendi ta zelai asko bitarte dirala, Benidor'en egun batzuk igaroten egoan Onaindia'tar Santi'ri be. Guztiak geratu ziran zurtz eginda eta samitasunez betarik. Zelan ez!

NOR ZAN

Ez dakit non eta zelan ezagutu neban Jesus adiskidea. Ba-leiteke aurpegiz abadegai-etxean ezagutu izatea, naizta ni baiño sei urte gazteagoa izan. Baiña gero bere entzutea nigana eldu~zan euskera ondo egiten dauan euskaldun baten entzute lez.

Urteetan izan gendun artu emon zabala idazle-lanetan, batez be Goiz-Argi aldizkaria argitaratzen zanean.

Geroago Kardaberaz-taidean alkartu Qiñan eta ikastolen aide zerbait egin-gura izan ziran batzar batzutan be bai.

Baiña gure artu-emonak sakonak eta zabalak izan ziran EUSKERAZAINTZA sortu zanetik. Erakunde onetan lan aundia ta egokia egon eban Jesus 'ek.

ILLETEA

Barri garratz on artu eta urrengo egunean Errexil'era joan giñan. Paulin eta biok, illetan kideko izateko ustez. Sasoiz eldu erri pout aretara eta sakristian alkartu giñan eun abade baiño geiago, Setien'dar Jose Maria Gotzaina eta Pagola'tar Jose Antonio Gotzain Ordezkarri Orokorra geugaz zirala.

Itxaropena biztu bear eta orretarako dei egiten euskuen abestiak eta irakurgaiak eta itzaldiak, baiña ezin

kendu barrutik galtze aundi baten biotz-jausia, ezin norberagandu egun bi edo iru lenago geure artean izan genduan batzarkidea, Jesus, joan jakula eta bere gorpua il-kutxa aretan eroiela illerrira.

Errexil'go eleiza aundia beterik eta gaiñezka egoan eta koruak naiz erriak egokiro abestu eban illetea.

LANAK

Jesus ez da izan geldi egoten dakian gizona, beti lanean ekin-bearrekoa baiño.

Bere lan aundi bat ikastoletan izan da. Nik arlo onetan ezin emon daiket zeaztasun larregirik, baiña ondo litzake beste batek zerbait idaztea.

Beste lan-arlo aundi bat, idazle-lana izan da: aldizkarietan, egunkarietan eta liburugintzan lan aundia egin dau Jesus'ek.

Orrez gaiñera, Jesus batzarretara urreratzen zalea izan da eta sasoiz etorten izan da beti. Batzarretan langille be bai.

Oiñarriko lana, gainera, Jesus'entzat abade-lana izan da. Abade-lana Eleizbarruti-maillan. Nok ez daki zenbat lan egin eban Liturjia euskeratzeko sortu zan talde aretan? Abade-lana, baita, parroketan, batez be askenengoz bere ardurapean izan dauan Errexil'goan.

EUSKERAZAINTZAN

Euskerazaintza Erri-Akademia'k ez dau sekula aiztuko Gaztañaga 'tar Jesus euskerazaiña.

Urrengo batzarrean, olakoetan oitura izaten dan lez, Deba'ko eleizan meza baten gogoratuko dogu baiña Jesus'eri omenaldi eder bat egin bear jakola uste dot. Egindako lanak gogoratze eta itzi dauskun eredu ederra ez galtzeko. Non eta noz Erri-Akademiak ikusi bearko dau, Errexil'en bear ba'da ala berak lan egiten izan dauan ikastolan...

Eskerrik asko, Jesus zure adiskidetasunagaitik eta laster arte.

OLAZAR'TAR MARTINEK

1991' KO EKINTZAK

Gabon Jaun-andreok:

Barriro be, urtero egiten dogun lez, oiko Batzar Nagusi onetan lengo urteko ekintzen barri emongo dautsuet.

EUSKAL IKASTAROA

Urteroko ekanduari jarraituz, Urrilla'n euskera-ikastarorako izen-emotea edegi zan.

Pozez oartu gara, azken urteotan jasan genduan ikasleen berakadea gelditu dala, eta aurten igaz beste ikasle edo area go etorri dira gure etxera, eta leku geienetan kopuru ori beerratu izan danean, ezin dagikegu genre ikasle-kopurua txarizat emon.

EUSKAL ASTEA

Dakizuenez, azken urteetan Eskolapiotarren ikastetxean, Euskal Astea Bizkaieraz ospatu dogu Gabonetan sartu aurretik. Zoritzarrez, 1991'ko urtean txulut egin dogu, ez guraria ez gendualako, itzaldiak emoteko aukeratu ziran geienek etorterik ez ebelako baiño.

An dala-ta, gure naiaren aurka uko egin geutsan asmo orreri, eta igaz ezifekoa gertatu zana, aurten egiteko erabagi sendoa arm dau gure batzordeak. Uste dogu, beraz, aurten ez dauskule utsik egingo dalako Euskal Astea'k.

IPUIN-SARIKETA

Antxiñako oitura txalogarri oneri jarraituz, Urtearen amairantza Ipuin-sariketa eratu genduan. Urtarril onetan dagokion epaiketea egiñik, ona emen sarituen izenak:

1'goa (40.000 laurleko) - Amaiur izenekoa - Iñaki Goikotxea'rena

2'gna (30.000 laurleko) - Itsastar izenekoa - Augustin Zubikarai'rena

3'gna (20.000 laurleko) - Nor izenekoa - Ezezagunarena

4'gna (10.000 laurleko) - Urdiñe izenekoa - Merino'tar Palmi'rena

Gure zoionak irabazleai.

EGUTEGIA

Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean urtero antolatzen dogun egutegia, aurten be argitaratu da.

Dakizuenez, irarri-domua Bilbao-Bizkai aurrezki kutxak ordaintzen dau, eta banaketea eurok eta geuk egin dogu. Dalako egutegia atsegin dakizuela, gure pozik andiena izango litzake.

DURANGO'KO LIBURU-AZOKA

Aurten be, EUSKERAZAINTZA'rekin alkartuta azoka orretara liburu-talde ugaritsua aurkeztu dogu. Batzaz beste,

aurten igazkoa edo zeozer geiago saldu dogu. Euskal irakurle gitxi dagoala kontuan arturik, ezin dagikegu larregi itxaron.

"ZER" ALDIZKARIA

Aspalditik bizkaieraz argitaratzen clan aldizkari bakarra, kaleratzen jarraitu dogu.

Bai, Erri-erakunde ta bizkaitar askok euren arbasoen euskerea gitxiesten eta zapuzten dabenean, betekizun ezinbestekotzat dogu, gure bizkaiereari eustea, eta aal dogun arten gure aldizkari ori argitaratzen jarraituko dogu.

Erri-erakundeek bizkaiereari (eta bidebatez euskereari) dakarkioen ondapena bide guztiakaz salatu dogu. Sarri askotan ergelkeri bardina entzuten dogu, eta auxe alegia: "Gu ez gara bizkaierearen arerioak, eta ez goaz aren aurka".

Jakiña, beartsu bat il daiten ez da bearrezkoa erailtea. Naikoa da janaririk ez emote berez il daiten, eta auxe da Jaurlaritzak eta Bizkai'ko erakundeek (gure lotsa andiarako) egiten dabena.

Bizkai'ko euskerea txokoratu dabe, eta geienek aztuta iraupen larriaz jarraitzen clan, bai ikastoletan, bai mezu-bideetan, bizkaitarrek ulertzen ez daben euskerea erabilliz.

Ereti an ustiatzen dot, aipaturiko erakundeak geure euskerearen iltzailletzat salatzeke. Eta auxe egiten da bizkaitarren diruaz... Bai, bizkaitarren diruaz bizkaieraa erailten dabe. Non dagoz Bizkaiko semeak, lotsa ta zitalkeri an agiaren ez zalatzeko...?

Gure "ZER"en atalari amaiera emoteko, guztiai eskatzen dautsuegu, aberastu dagizuela idazlanak balduz. Izan be, askotan txarto ikusten dau bere burua Olazar'tar Martiñ'ek gure aldizkaria beteteko.

LAGUNTZAK

Gure asmoak aurrera eroateko dirua bearrezkoa da. Augaitik, guztioi eskatzen dautset, urteroko ordain-saria bialtzea ez dagiela aztu, biderik onena izanik, geure kontu-agiriari ordainketea egitea.

Aipatu bearrean naz, Bizkai'ko Foru Aldundiaren diru-laguntza. Oneri esker, gure asmoen zati andi bat egi biurtu aal izan dogu. Aurten be, urrean, bearrezko laguntza izango dogula uste dogu, euskerearen onerako.

JOAN DIRANAK

Ezin aipatu barik itzi, gure aldetik ostendu diran adiskide to euskaltzale zintzoak.

Ara... Aita Lino Akesolo jakintsu to apala. Etxebarria'tar Ixidor "ZER"en lankide, eta euskera-irakasle zintzoa. Bidaguren'tar Angel idazle to olerkari bikaiña.

Onein eta beste joandako bazkideen alde, otoi bat biotzez.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

GASTANAGA'TAR JESUS

Lurretik gorantz doakizun nire agurra, abegi onez, artu egizu. Otoi-usaiña, minduta geratu dan biotzaren barne oiartzu besterik ez da izango nire gaurko jaurnaldia.

Ainbeste gauz eder, ainbeste itxaropen, ots batean, moztuta geratu dira. Zure euskal sendiak min aundia artu dau, balio ain eder ta aundiko euzko langille ta abade leial baten agurtueraz.

Buru zuzenak ta biotz neurtuak zelai aundi bat dauka bizitzaren aurrean ta biak, ondo, alkarturik, gizontasunez ta adorez, denporeari ezer galtzen itzi barik, arin, doaz lanaren arlora.

Era ontan lan egitea, ez da edonoren jokabidea, baiña giza-seme jatorrak, azkar eta adoretzu, artzen ditu bere bideak.

Aldia laburra da ta biziari onura artu bear jako, al dan era onenean, soloak atxurta ta zelaiak lantzeko.

Zure lantegi nagusia apaizgoa zan. Ta bizikera onek, argi, agertu ta esan eutzun: landu gogoa, betiko biziaren argia izan dedin Euskalerrian; baiña ez itzi, bertan bera, atxur eta kodaiña sasiak ebagi ta bideak leuntzeko.

Zure nai bikaiñak lortzen, gogoz jardun zenduan. Goizetik gabera eguna laburra zan, zeure asmo ederrak burutu al izateko.

Ori dala-ta, liburu, ingurrazti ta idazkortza arturik, gogotsu, ibili ziñan batzen eta banatuten, jakituria artzen eta zabalduten. Geldi egoteko astirik ez zeunkan; jakiñean ba-zengozan lez, jorratu zenduzan euskaldun bideak bizitz denpora laburra, ondo, erabiliz.

Zenbat joan-etorri, batera ba bestera, Aitor eta Euskalerraren izkuntza zar, aberats ta jakintsua geroago ta ederragoa izan dedin. Ez zeunkan bildurrik euzko gizonen aurrean agertzeko, euskera zaindu ta edertu bear zan orduan.

Amaren itzak dei egiten eutzun, ama berberaren odolagaz busti eta indarturik. Egin al zendun guztia, gitxi zan zuretzat, gure itza ta gure izkuntza ederragotzeko.

Izan bere, bitxi ederrik ba-da munduan, euren artean bat euskaldun baserritarrak sortu ba biotz, buru ta miñean darabillan izkuntza da. Munduan izkuntzlari jakintsuak arritu zituan euskerak ta baita here euskal gizonak.

Gizontasuna egiagaz alkarturik, berez da, deikorra ta estimagarria, ta munduaren egaletan, olantxe, onartua izan da. Euskalduna here izkuntzagaz, legez, deduz eta abegi onez, euzko gizontasunari eskerrak.

Zuk, Jesus, seme kutun legez, ezin itzi bertan bera, erri berezi baten bitxi zoragarria. Ta azkeneraiño jokatu zendun, leialtasunez, zure bizia eskeiñirik opari garbi legez, lanbidean ziñoazela Gipuzkoatik Iruñara, Tolosako erri ederraren lur gaiñean.

Erriaren aide bere bizia emoten dabenak baiño gauza aundiagorik iñork ezin egin leike.

Euskera kultur aide lan au aipagarri ta ederra dalarik, Euskalerriko kristauarentzat bada beste lan bat bikaiñagoa. Gizonak, barruan daroan, beti bizi nai izatearen gogoari argibidea emon, ta pozez ta itxaropenez, laguntzea, au egiz da, bizia Egillearen aurreran urtzea ta kristau erria here barneko egarria asetuta iztea.

Ogetamabost urteren buruan oiukatu izan dozu Aitarik onenaren izena Gipuzkoako lurraldeetan ta borondate oneko jendeak, gogo onez, artu izan dabe Jaungoikoaren jakituria, maitasuneko intza, euren osasungarritzat ta betiko zorionaren aurrerapen ezaugarritzat.

Jesusen billa ibili ziñan leialtasun guztiagaz zure apaizgo osoan. Apaizgoko beste lan ta lanen artean, gogoz, saiatu ziñan Jesus ezagutu erazoten euskaldun seme-alaba jatorrei, ta izkuntzaz ta jakituriz, egiz, eder dan "JESUSEN BILLA" zeure testamentu lez itzi deutzazu maite zendun erriari.

Ondo, agertu zan egi onen baietza Errexilgo eleizan zure aldezko Meza ederrean. Eleiza ta elizpe inguruak, zure irakatsiak, gogoz, artu izan zituen jendez beterik. Bi milla lagun baiño geiago, arretatik onenaz, ixiltasun santu batean alkarturik, otoi egiten. Zerua zirudian Ernio magalak.

Geroago ta joriago joain Mezaren giroa edertzen otoi, Gotzaiñaren itzaldi ta Jaunartzearen berotasunez, ta guzti onen elburu lez, eleiza dardaratu zan bi milla ta berreun miñek Jesus Maisuaren otseiñari bertsoak, ain min gozoz, abestu eutsezanean.

Jesus, zure lana ezagutu eben zure entzuleak, zure izerdia eskertu eutzuen, ta orain, agur, laster barriro, ikusi arte.

PAULIN

GALLASTEGI'TAR JOSU

Ezagutzen ete dabe gure irakurleak Gallastegi'tar Josu?

Euskaldun bizkaitarra dogu. Pianulari ospetsua. Ameriketako Ballet Theatre talde entzutetsuan egiten dau lan.

Berrogei ta bederatzi urteko gizona da eta berroge] daroaz ereslanetara sartuta.

Derio'ko parrokian asi eban bizibide an, eleizako organulari lez.

Oraintsu izan dogu Bilbo'n, "La Traviata" operan eta "Cos] fan tutte"n abeslari bakarra izan zanari laguntzen eta aurten Bizkai'ko uri nagusian ospatuko dan erriarteko abesti-norgei agora be etorriko da.

Eres-zaletasuna bere senditik jatorko: Arreba bat dauko ABAO'ko abesbatzean eta beste bat lanbide bakarra pianularitza dauala.

Bere bizitzako norabidea aldatu zan, irurogeiko amarkada barruan, bere ikasketak Bilbo'ko eres-ikastetxean amaituta, Benezuela'ra joan zanean.

Eta Benezuela'ra joateko zioa, inguru onetan eres-giro aundirik ez aurkitzea izan zan.

Ori jazoten zan, batez be, ereslari barriakaz. "Emen -diño berak- eres-ikastegan ikasketak amaitu nebazanean. uste eben goi-maillakoa nintzala, baiña neuk ez neban uste olakorik. Jakin neban gauza gatxa zala pinu-bizibideaz bizi izatea eta zaila, baita, pianu-ikasketa sakonak egitea.

Kultura Erakundearen ikas-sari edo beka bategaz urte batzutan ekin neban eta gero Karakas'en amaitu nebazan gorengo maillako ikasketak".

Amariketako Uri-Buru onetan gure Gallastegi'k adu ona izan eban: Iparramerikatarrak ziran talde bateko irakasleak agertu jakozan eta oneik zabaldu eutsoezan ondoren onerako ateak.

Irakasleetariko bat Harriet izan zan "nire bidean geien lagundu daustana, beronen zuzenbidez asi nintzan Benezuela'n eres-aldi batzuk emoten".

Aldi onetan, 70n. urte-inguruan, ospetsu nintzan eta pianulari lez Europa, Errusia, eta mundu guztian ibilteko aukerea izan neban.

Benezuela'n bertan, Ego-Amerika osoan eta Europa'n gure ertilariak ospea eukan, iñoQaz leiaketan ibilli barik.



ARPIDETZA ORDAINTZEKO ESKARIA

Bilbo-inguruan arpidetzaren saria eskuratzea erreza da, etxerik etxe joaten dalako kobratzaillea.

Baiña ez da ain gauza erreza kobratzailerik ez dagoan errietan arazoa bideratzea. Ordaintzeak egiten ez diralako ainbat galtzen dogu.

Errietan bizi zarenoi auxe eskatzen dautzuegu:

- Artu zuen kontu idegiko txartela.

- Ipiñi goian 1200.

- Lenengo lerro luzean ipiñi "Euskerazaleak"

- Urrengo lerro utsean "Milla ta berreun".

- Azkenenengo lerroan erria, illea ta eguna

Sartu dana karta-azal baten eta idatzi gaiñean: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi 14, 2.ª eskoia.

48001 Bilbao.

ESKERRIK ASKO
EUSKERAZALEAK-ALKARTEAK

ERRI-BERBAK BATU ETA GOGORATZEN

BIA, Bizkai idazle alkarteak, igaz deitu ta aurten arabagi dauan berba eta esaera zarren leiaketara uste baiña jende geiago agertu zan, bai eta batzuk lan sendo ta ugariak aurkeztu be.

Bost sari egozan, baiña lanen egilleak berrogei inguru batu ziran.

Eta ume eta eskolartekoen kontakizunetan, irureun lagunetik gora.

Esan bear leiaketa orrek eratzailleak uste baiña arrakasta biziagoa euki dauala.

Azken au itxita, guk, gaurko lantxu onetan, itz batzuen aipamen eta laburpen txiki bat egingo dogu. Gure ustez, BIA'k gai berezi, atsegin eta errikoia dauka agertu diran lanekaz ikerlan sakon eta jakingarri bat egiteko eta ez dautsagu aurrerik artuko, ez bererik kenduko.

Baiña musikan zazpi konpas libre ba dira "plagio"an ez sartzeko, uste dogu gure gaurko lantxo onek ez dautsala bitxitasunik eta jakingarritasunik kenduko geroago edo beste leiaketaren baten ondoren gertu leiken lanari.

Agertu diran arteko berba eta esaera batzuk ba dauke ezaupidea eta jarraipena iztegiatan edo esaera liburutetan. Baiña ez danak, eta beste batzuk gaurko batutzailleak eta euren inguruetan dauken esanguretatik ezbaridiñean erabilten dira.

Berba batzuk aukeratuko doguz.

ARMIN.– Zeberio'n batua da. Pertsona bat **armin** egotea, artega, kezkatu dagola adieraztea da.

Azkue'k bere Iztegiatan era onetan jasota dauka: Armin. (B, a ts) erderazko **apurado** edo ta **extenuado**. Esaldi au be agertzen dau: Eguraldi armin = tiempo caluroso.

ARKILOKA.– Zeberio. Arkiloka egon. Zer egin barik. Azkue'k ez dau batzen. Aizkibel'ek be ez. Ez eta Mujika'k be.

ATINIK LO.– Arratia. Gora begira to. Azkue'k ez dau batzen.

BABORRUE.– Arrazola. Batzailleak emoten dautsan esanaia au da: Lora andidun soiñekoa. Soiñeko arrua.

Baba-arrutik ete dator?

Ondarroan ba dago antzeko berba bat baiña ez dau zer ikusirik goiko esangureagaz. Babarraso. Itxas txoria, baltza, itxas uretan sartzen dana arraiñak artzeko.

BADESTU.– Gaiki bat banandu eta ia amaituta lagatea.

Gozoak badestu doguz?

Azkue'ren iztegiatan ez dator. Mujika'k **baeztatu** agertzen dau baina esanai oneitan: jorcar, ahechar, abalear, cerner, tamizar.

Markiñaldean batutako berba da.

BAGL.– Zeberio'n entzuna. Berba au batu dauanak esaera onegaz lotuta dakar: Aurten gariak **bagi** datoz.

Berak diño garia bagi datorrela esaten dogunean, zera esan gure dauala: Galburua eta garau izango diran modukoak dirala, baina barrutik utsik, au da, bear aiña mami emon barik.

Azkue'k Mondragoe, (Mad, Bizkaieran eta Azpeiti Gipuzkera izkelgietan ezaguntzat emoten dau. Esanaren azalpena: tardo para andar.

Ondarroan pertsona bagi esaten da, bai eta baua be, puztua, baiña makala dala adierazten. Bolibar'en **paotu** esaten dabe, **pautu**, anditu eta barru uts gertu dala adierazteko.

BATAPARRAMI.– Ondarroa'n. Joko baten bardingintzera eldutean, jarraitu nai ba da erabilten da berba ori, jokoan eskubide bardiña daukela-ta.

BIBITXA.– Ondarroa'n batua. Bata bestearen antzeko. (Tal para cual) Azkue'k Bibita itza erabilten dau, baiña era onetara: "tertulia de novios" eta Be-Nabarra'ko lez. Ba dakar baita beste antzeko bat be: Bibitsi (Laburdi-Ainhoa): "Mellizos, gemelos edo ta nones y pares".

DRAMIO.– Igesi duan bateri oratutzean, arrapau zaitut edo antzerako zerbait esateko. Ondarroa'n asko erabilten da ume arteko jokoetan. Azkue'k ez dau batu izan bere Iztegiatan.

KUKUMARRU.– Aramaio'n batua. Aratustetako pertsonaia. Itxusi, izigarri, kalean gora ta bera umeei jarraika ibiltzen da, puxika, puztua eskuan darabillala. Eta umeak beragandik igesi kantaten dautse:

Kukumarru, txarri belarri, txixetan etzin eta kaketan jarri.

LO KONKORRA.– Erdi lo. Konturatu barik lo-muxingetan egotea. Erri bakoitzak bertako bizibideko zerbaiten irudituta emoten dau egoera orren azalpena.

Ondarroa'n, esateko, txibitan dabil, edo kabratan dabil, esaten da beste esanbide askoren artean, orrela ikusten dan bategaitik. Orrela itxasoan txibi edo kabra arrantzan dabiltzanak sarri luzaro geldo edo ezer barik egon bearrean lo muxingak egiten dituelako.

MANTZIN.– Zeberio'n batua. Txarra, adierazten ei dau.

Ondarroa'n kezka bakoa, nagia, erderazko **indolente** antzeko.

Azkue'k ez eban batu.

MOSKANA.– Intxaur berdeen gaiñeko eskola eta berak lagaten dauan berdetasuna. Azkue'k ala batzen dau.

Zegaitik galerazoten ete zan Bizkai'ko Foruan, 11 garren legean, 35 atalean, moskanak uretara jaurtitea? Ala diño legeak: Ur gazatako erreketan ez daitea onda sarerik bota, ez karerik, ez intxaur azalik.

PUELA.– Lekeitio'n samar potoari deituten dautse. Nundik ete dator? Azkue'ren Iztegian Pu edo Phu itzak agertzen dira, eta azalpen onegaz: interjeccion que expresa asco.

TRAMANKIÑA.– Aramaio'tik bialdua. An diñuenez pertsonai baldarra, ibilten eta egoten egoki ez dana, ezelako fintasunik ez daukana.

Tramana arrain zabal eta gorpu anditik ete dator? Gogoratu Txomin Agirre'k arrain saltzailleen arteko eztabaidan, Tramana eta Brix aukeratu zituala eta Brix'ek Tramana'ri esaten dautsola: Entzuizu Tramana zabala, atso popandia...

SANTOÑA-AMERIKETA.– Ala deituten eutsen arrantzaleak Kantabria'ko inguru areri. Bizkai aidekoak, uda-aldian, ara joaten ziran lengo denboretan, andik edo ango uretan atuna arrantzaten ibiltera, bestela joan-etorrietan egunak galdu eta arraiña be galtzeko arriskuan erabiliko ebelako.

Denboraldiko dirutza guztia batera ekarten eben, eta gero emen diru banaketa edo partillak egitean, uste izaten eben antxiñakoak Ameriketatik aiña diru irabazten ebela.

Ortik Santoña-Ameriketa deitura. Orrez gain inguruko txikiak len uste izaten eben euren amak Paris'tik ekarten eutsezala anai-arreba barriak. Bahia

ondarrutarrak, ume bat jaioten zanean, Santoña Ameriketatik ekarri ebela esaten eutsen euren seme-alabatxuei.

ZAZPIKIJIA.– Lekeitio'tik batu dabenak "pertsona torpeari" deitxola esan dabe. Ondarroa'n, nire ustez, bestera da: pertsona keixu, larria. Azkue berberak bere Iztegian "sietemesino eta impaciente" ezarten dautso.

Arrasate inguruan berba itxusia dala esan eusten bein, antzerki baten mutiltxo bi alkarregaz eztabaidan ebiltzala, batak besteari "Ze zazpiki da berau" esaten ipini nebazalako.

TXURLA.– Txalopen kulunka. Azkue'k ez eban batu. Mujika'k bai, eta balanceo lateral de las embarcaciones, adierazpena emoten dautso.

TXOKOTA.– Durango aldetik bialdua. Zotiña. Hipo.

Esan behar da Azkue'k ainbat agertzen dauzala batean eta bestean batuta: Ipotz (Orozko); Kika (Arrona) Kiketz (Txorierri), Koka, Zuberoa'n, Kiki (Markiña), Xopin (Goi-Naparroan) eta Xetoin (Be-Nabarran) eta Xoten (Zuberoa'n). Bai eta Txokoleta, Bizkaian, Txoten (Arratia eta Orozko'n), Txotin, Aramaio, Arrasate, Otxandio, Ubidea eta Durango aldean); Txukun, Aizarnazabal, Oiartzun eta Lesaka'n eta Zopin Baztan, Berastegi eta Oiartzu'en.

Eta beste geiago, itz berberari tokian tokiko aozkatzetan.

Orra, gaurkoz, leiaketara agertutako batzuen adierazpenak. Ezin ukatu erri askok, igarri barik, berba bitxiak erabilten dabezanik.

ZUBIKARAITAR AUGUSTIN



AIZE OSASUNGARRIA

Geiso aldi baten ondoren, ondo alikatu ta atsedenez egotea bearrezkoa izaten da sentotu ta indar-barriztatze-ko. Batzuetan oean etzunda bestetan zutunduta, astia eman bearrean izaten gara.

Oizko lan eta eginbearrak aide batera lagatzen doguzan ezkerero, beste zeregin errez ta erosoagoetara berez jo egiten dogu.

Orixe gertatu jatan niri be, ta alako batean urreratu nintzan neure idaztegiara. Alditxo baten ikusmiratu ta gero, neure euskal-zaletasunak eraginda-edo, bazter baten aspaldidanik aiztuta egoan euskerazko idazti bat eskuratu neban.

Artutako idaztiaren izen-burua EDESTE DEUNA dogu. Idaztia asimasiko ta ulert-erreza Ibargutxi'tar Jon Gurutz jaupariak idatzita. Gure guda baiño lentxuago argitaratu izan zan: 1936 urteko otsaillean ain zuzenbe. Beraz, garai berezi ta estutasuntsua. Andik laster asi zan borroka.

Garai artan, mutil gazteak gifiñala, Bilbo'ko Eusko Gaztedia'n gogo beroz giñarduan euskerea gure izkuntza maitegarria buru-belarri ikasten. Orduan erabillitako idaztiak EUZKALTZALE BAZKUNA SORTA'kuak ziran. Oraindiño maitekiro ta len-miñez zaintzen doguz. Ikasbide oneikin alegintzen giñan, jo-ta-ke, egun baten euskaldun on batzuk al izateko asmoz.

Irakasten euskuen euskerea jatorra, garbia ta, jakiña, H-bakoa zan. Beste jokera, Batua dalako ori, gure anaiarteko guda ondoren sortu zan eta geroago ta kutsatuagoa nabarmentzen da, gureari garbikeria deituaz.

Aitatu dogun idazkia irakurtean, atsegin nabarmen bat oartzen da gure gogo poztasunez beteaz. Orduan gerabilzan ortografi edo idazkera arauak, ondiño emen ikusten doguz. Adibidez "rr" eta "ll" (bikote) idazteko, r eta l izki gaiñean jartzen ziran marrak. Izan be, ez au garrantzi aundikoa baiña, dana dala, bai zan gure euskerearen bereiztasun bat eta, bera be, gaur egun bertan bera itzita geratu da.

Baiña iztegi ta itz-joskerari buruz zer esan geinke? **EDESTE DEUNA** idaztian ez dira ikusten erderakadak parrastaka, orain oituta gagozan bezela. Egiazki, antxiñatik artutako itz batzuk, noizean bein ikusten doguz. Baiña ori zillegi ta legezko da, luzeren luze, euskal-jantzi doguzan ezkerero.

Jabetze au izkera guztietan gertatzen dana da, ta beti ontzat artzen dira: Lege, eleiza, errege, aingeru... eredu bezela artzen doguzan itzak dira. Onelako itz batzuk izan ezik beste guztiak, naizta barriak edo askotan ez-ezagunak izan, idazti onetan egilleak ez da erderara jotzen oso bidezko ta ulergarriak diran itzakin asmoa adierazteko.

Euskeraren sustrai ta iturburutik atarazten dauz. Adibidez: Igarle, jaupari, opa-mai, obena... profeta, abade, altare ta pekatuen orde irakurri al izan doguz.

Garbikeria dala? Ori diño gaur egun gure izkuntza zikindu ta aldatzen ari diranak. Neuk behintzat, idaz-tankera onetan egindako idazlanak atsegintasun aundiagaz irakurten dodaz ta bestera jazoten jat gaurko euskera mordollo ikustean.

EDESTE DEUNA'kin gogo berotu ondoren, garai artako beste idazti batzuk artuaz gaiñetik irakurri neban. Esate baterako: AITA PRANTZISKO DONT-SUA'REN LORATXUAK Jose M.^a Azkue'k 1923 urtean euskeratuak; baita GAROA Domingo Agirre'k bigarren agerraldia 1935'an argitaratua, beste artean. Danak iaz-tankera batekuak dira: iztegia, ortografi edo idazkera-arauak eta itz-joskera bardiñak darabillez.

Benetan ederra gure izkuntzarako izan zan sasoi a. Zoritxarrez asitako bidea laga ta beste bat, guztiz kaltegarria, artu zan euskerearen ondamentira daroana alegia.

Tamalgarría baiña ukatu-eziña da. Ara oraintsu DEIA'n oizko dan albistari batek idatzita zer irakurri neban: "Are okerrago, euskeraren muiña ari gara jaten barne-barnetik. Euskara bera ari gara erdalduntzen.

"Ondoren geiagotzen dau gaitz oni zuzen-bide edo erremediorik jartzen ez ba-dogu, gaztelaniaren izkeki edo dialekto barri bat sortuko dogula.

Ainbeste kutsadura-artean, orduko tankera jatorra ta garbia irakurtean, aize osasungarri bolada bat gure biritietan sartuko ba'litz bezela, gogo atsegiñez betetzen jaku.

Alan bere, ez gaitez an izan lar ezkorak ta baikortasunari itxaropenaz begiratu daiogun. Argiaren aurretik igesi doa illuna... diño gure gazte-denporako abesti aberkoi batek. Gaur be izpi itxarokor batzuk, an emenka, ikusten dira.

Ora or, urrin joan barik, **IZADIKO PITXIAK** eta GALDU gure Zubiri'tar Iñaki'k idatzitakoak. Baita be, oraindiño egun batzuk dirala (Urtarrillako 16'an) Bilbo'ko "Kukuma" Liburudendan beste idazti barri bi aurkeztu ziran: **ZAAR-BARRI**, Jose Antonio Oar-Arteta'rena eta **EUSKO-UMEAK ATXERRIAN**, neure adiskide ona dan Xabier Goitia'k eskeiñi dauskuena. Biori nire zorion beroenak.

Beto ba, zorionean eta ugari, onelako aize osasungarri boladak.

IDIGORAS'TAR JOSEBA ANDER

BIZKAIERA ETA BIZKAI'KO GAZTEDIA

(Deusto'ko Unibersitatean Egindako Battiari Baten Oroipena)

Illabete-pare bat igarora izango da. Baita zerbait geixago ere, bearbada. Deusto'ko Unibersitatean mai-inguru bat izan zan, Bizkaieraren egoera ta etorkizunaz itzegiteko. Unibersitate artako ikasleek erata.

Ez euskun inork deitu, baiñan an izan gintzazan EUSKERAZAINTZA Akademian lan egiten dogun batzuk. Geuk ere, Akademi ortako akademilariok, badogu ba zer esanik, an jorratu bear zan arazoari buruz.

Idazlan ontan, nik, an neronek esana eta an neure barnean sumatu nebana bakarrik azaldu nai dodaz.

Beste sentipen guztien gaindik, arritasuna izan zan neure lendabiziko sentipena, unibersitateko antzoki ederra oso-osorik ikasle gaztez beterik ikustean. Oartu nintzan unibersitatara sartzerakoan, ango baztar guztiak jende gaztez beterik aurkitzen zirala, baiñan unibersitateko beste eginkizun bereizi batzuetara etorriak izango zirala iduritzen yatan.

Nola pentsatu, gaztedi ura dana, gure maiondorako etorria zitekeanik. Oiturik gagoz ba, euskerari-buruzko billeretan lau katu besterik ez ikustera: lau katu, eta katu zarrak lauak.

Asi zan batzarra. Izena "mai-ingurua", zekarren, baiñan mai-inguru baiño geiago izan zan, irakastaldi bat. An goian ager-tokian zegozanek itzegin eta bean gengoanok entzun, eta galdetu.

Beekooi beste eskubiderik ez euskuen emon-eta. Gutako batek, goian zegozanek izketa amaitu ebenean, zerbait azaldu ba'eban, "Mesedez galderak" oiugiten eutsan irakast-aldi artako zuzendaritza eban Patxi Altuna'k.

Alare, benetan iduritu zitzaidan entzungarria mai-ingurukoek esan ebena. Izan zan an, nola ez? "el batua"ren aide sutsu itzegin ebana, "el batua" bizkaiera iltzera ez zetorrela adierazi naiez. Baiñan beste batzuek oso gauza ederrak esan ebezan, eta aien gogapenak, Akademiak bezala bera ere "Euskerazaintza" izen daun aldizkarian argira emongo dautsueguz.

Alatagutziz, -izan daiteke esatera noan au egia ez izatea, eta poztuko nintzake orrela ba'litz- "el batua"z yareki ta bear dan bezala lasai itzegin aal izateko, geiegizko bildurra sumatu nuan an, goian irakasle lez zegozan aien artean: Euskaltzaindiaganako, edo Euskaltzaindiaren arau okerrak ontzat artu dabezen Erakundeenganako bildurra.

Ai nere poza, ontan atzipeturik ba nego!, baiñan lanaren saria Erakunde oien eskuetatik jasotzen dabe-nek, arreta millaz ibilli bearra izaten dabe-ta...

Goikoen irakatsaldia amaitu zanean, ni izan nintzan beekoen artetik lendabizi itza eskatu nebana. Egia esan, bildur aundiz jeiki nintzan, ziur nengoan ba, gaztedi ura dana "el batua"ren zalea izango zala.

Ortaz, errez igarri aal izango dozu, zenbat aiñakoa izan zan nere arritasuna, neure aurreneko itzak gaztedi arek txaloka artu zituanen: Zer esan neban? Onako auxe:

"Gaur egun Bizkaieraren etsairik ikaragarriena ez da "Administrazioa" (orrelako zerbait esan bait zuan goikoetakoren batek); ez da gaztelera ere; gaur Bizkaieraren etsairik aundiena "el batua" da. "El batua", zuzen-zuzenean, Bizkaiera iltzera dator. Eta esango dautsuet zergaitik:

Entzun zan bein da berriro Patxi Altuna'ren oiva: "Galderak, mesedez. Galderak bakarrik".

Asarretu ninduan azkenean eta, bein betirako isilik gelditu eiten, onako auxe esan neutsan:

"Begira, Patxi. Emen danok dogu itzegiteko eskubidea. Eta danok itzegingo dogu. Ta danok jokuan sartzerik ez ba dogu, pelota zulatu, eta kanpora joango gara guztiok".

Ez neban, Deusto'ko ikasle jakintz-egarri aien aurrean ezer berririk esan. Esan daitezkeanak danok esanik dagozen ezkerok, ezer berririk esaterik ez bait dogu. Ona, pixka bat luzatuta, an era laburragoan agertu nebana.

"El batua" Bizkaiera iltzera dator:

Ikastoletan Bizkaierarik irakasten ez dalako. Ikastoletan ez da "el batua" besterik irakasten. Bizkaierarik ikasten ez daben umeeek nola gero bizkaieraz egin daikee?

Bizkaiera beren etxeetan Bizkaiera ikasi daikeela, esango daust bateren batek. Ez dabela ikasiko, eran-

tzungo dautset nik. Zergaitik? Baserrietako etxeckojaun eta etxeckoandreek beren umeen izketarik ulertzen ez dabelarik, batzuetan etxe-barrengo asarreak eragozteko, besteetan beren buruak ezjakintzat etsitzen dabezalako, bizkaieraz egitera ausartzen ez diralako.

Au da "el batua" k egiten dauskun gaitzik nardagarriena: umeen eta gurasoen arteko izketa nekagarri biurtzea ta ezereztea.

Umeek par egiten dautsoe beren gurasoei: "Esan dozun on txarto esana dago, aitita. Ori ez da orrela esaten", ama. Eta aititak, edo osabak, edo amak, beren umei, -ikastoletan dabilzalako!-, sinistu egiten deuse, eta beren euskera, Bizkaiera, euskera txarra dalakoan, itzegitera ausartzeke, isilik gelditzen dira: "Guk ez genuan ikastoletara joaterik izan-da"...!

Eta oirrela, Bizkai'ko euskera bikaiña bazterturik, Bizkai'ko ia ikastola danak euskera mordollo ez-euskaldun bat, "el batua", Bizkai'ra sartu naiean dabilzkigu!

Ikastoletan, aurreneko mailletan umetxo txikiei Bizkaiera erakusten asteko asmoak badoguz", esan oi du bein-edo-bein Euskaltzaindiak. Baiñan Euskaltzaindiak konfiantzarik ez du merezi. Ikastoletan, "el batua" da nagusi. Gaiñera, umetxoei ikastoletan Bizkaiera irakastea, **umetxoei bakarrik** irakastea, Bizkaiera umeizkuntza biurtzen dalako. "Umetxoek, Bizkaieraz. Guk ordea, zortzi urte bete doguzonok, guk, aziak gerlako, guk..., "el batua"z!

Orrelako zerbait ezagutzen dot nik, nere Tolosa'n sarri gertatua. Lenenjaunartzea egin arte, ondo edo txarto, Gipuzkeraz itzegiten dautse gurasoek umetxoei etxean. Umetxo oiek ordea zortzi urtera iristen diranean, zer egiten dabe? Ez beintzat Gipuzkeraz! Zer orduan? "El Batua-z"? Bai zera! Gaztelera egiten dabe!!! An ez du inork "el batua"rik egiten. Gaztelera egiten dabe ikastoletan "el batua" ikasi daben zortzi urtetik gorako neskato ta mutikoek!!!

Baiñan "el batua"z" egingo ba'lebe ere Gipuzkera an eta Bizkaiera emen galdurik geldituko litzakez. Eta lenago Gipuzkera baiño Bizkaiera, onek "el batua"rekin ezertan zer-ikusirik ez daulako. Ikastoletan "el batua" besterik egiten eta irakasten ez dalako, bizkaiera baserrietako txarri-korta-izkuntza biurturik geldituko da.

Ez jakiñen eta arloteen izkera. "El batua" berriz, jende ikasi dotoreen izkuntza. Eta inork arlote agertu nai ez daulako, Bizkai'n ez da Bizkaierarik itzegingo. Euskeraren itxurako zerbait itzegitekotan, "el batua" itzegingo litzake.

Baiñan eskoletan ikasitako izkuntzak, beti izkuntza illak izaten dira. Bizkai'n Bizkaiera galtzen ba'da, ez

da "el batua"rik itzegingo. Gaztelera egingo da. "Nekerik txikienaren legeak", on eskatzen daulako! eta abereek ere betetzen daben lege orren aurka ezer egiterik ez dagolako! Eta nork ez daki, gure gazteei, ikastolan ikasitako "el batua" baiño askoz errezagoa, askoz, "neke txikiagokoa" gertatzen zaiela gaztelera? "La ley del minimo esfuerzo" "Nekerik txikieneko legea"!

Jeiki ziran nere atzetik Deusto'n baste batzuk ere, nik esan nebana bera arrazoï geiagorekin ziurtuz. Geienak, Euskerazaintzako akademilariak. Baiñan baita Euskerazaintzakoak ez ziranak ere. Auen artean gogoan dot jator itzezin eban Aurre jauna.

Ta, an, areto eder artako giroan, au da tinko mamiturik gelditu zana: "El batua" Bizkaiera iltzera datorrela"

Bigaramoan, "Radio Euzkadi-Radio Vitoria"tik onako au entzun neban Deusto'ko mai-inguruaz jardun ebanean: "Quedo demostrada la necesidad del batua, y clue el batua no es ningun peligro para el euskera vizcafno" Gezurra guztia!

Deitu neban, irrati ortara. Agindu eusten esan ebenaen kopi bat bidaliko eustela... Gezurra guztia! Neregana ez da oraindik ezer iritxi.

Txalo asko entzun ziran Deusto'ko areto artan, eta gure bidetik itzezin ebenentzat guztiak. Orrek, gure gaztedia "el batua"z nazkatzen asirik dagola, eta betiko Euskera Laukoitzaren edertasunaz oartzen ere asia dogula, adierazten dauku.

Deusto'ko gazte aietatik asko giputzak omen ziran Zubikarai'k esan eustanez. Ez da arritzekoa. Len ere Eusko Jaurlaritzak euskaldunen artean bere azkeneko ikerketa egin ebanean, bizkaitarrak baiño gogorrago irten bait ziran giputzak "el batua"ren aurka.

Bizkai'n, Gipuzkoa'n, ederto gerturik daukagu giroa gazteen artean. Zer egin daikegu guk gaztedi orri bide zuzena irakasteko?

Ez dakit, irakurle. Baifian ni beintzat gerturik nozu edozertarako. Idatzi neri, (R. Buesa kalea, 1, 3.º 01008 Gazteiz) zerbait burura etortzen ba'yatzu. Idatzi "Zer"era (Colon Larreategi, 14, 2.º Bilbao-1), idatzi Euskerazaintza Akademira (Getari Kalea, 21, B. Donosti), baiñan idatzi eiguzu, arren, zerbait gogortzen ba'yatzu.

"S.I.D.A.: ZEMAI AUNDI ORI"

"S.I.D.A." Orixe da gaur egunean aoz ao entzuten dogun berbea, eta bildurrez entzun, zeatzago esanda.

Zalantza barik, azken aldiotan gai bat erabili izan bada mezu edo albiste-emoillean artean, orixe izan da, ain zuzen be. Minbiziaren antzera, ez jako konponbide edo txerto miraritsu bat aurkitu gatx orreri orain arte beintzat, eta on dala-ta geroago eta aundiagoa egiten doa jendearen eta jakitunen kezka eta ardurea.

Urte batzuk atzera joanda, iñork ez eukan gaixotasun orren barririk; alan be, bere ondorioak gaurkoak baizen izugarriak izango ziran ziurkiro. Egun batean, baiña, gizon ospetsu batek, Rock Hudson, antzezleri ipar-amerikarra, gatx orrek jota aurkitzen zala autortu eban eta ortik aurrerantza, gauzak guztiz aldatu ziran.

Bat-batean eta abiada aundiz, mundu onetako bazter guztietara zabaldu zan barri on eta bildurra eta ikarea nagusitzen asi ziran. Osagilleak, adituak eta ikerlariak, bitartean, euren lanari ekin outsoen urtenbideren bat billatzearen edo.

Eta gatx orreri buruz, eretxi batzuk agertu ziran. Orrein artean zelan drogazaleak eta "homosexualak" ziran SIDA artzeko albiderik geienak eukezanak. Ortik aurrera orma aundi bat sortu zan jende orrein inguruan. Olan, orreitariko bat izan ezkerro, zureak egin dau, eta alderantziz, ez bazera ardurarik ez. Era orretan, bereizkeri itzelak egin eta egiten dira notin edo pertsonen artean. Asmo edo pentsakera orreik ostera, oker egozan, jarraian ikusiko dogun lez.

Egun oneitan, SIDA gaz zer ikusi osoa daukan albiste bat nagusitu da izparringi, aldizkari eta mezu-bide guztietan: EARVIN "MAGIC" JOHNSON Los Angeles Lakers saskibaloi taldeko jokalaria eta izar aundiak autortu barri dau SIDAren gatxa daukala eta ondorenez kirola egiteari itziko dautsala.

Barriak, zabaldu orduko, gogor astindu dauz bai Laterri Batuak eta bai gainontzeko errialdeak; orretzaz ganera, jendearen pentsakera aldatuazo be bai.

EARVIN JOHNSON berak egizaletasun aundiz esan dauanez: "Guk uste dogu ez jakula geuri Iñoz jazoko ori, besteai baiño". Orain, ostera, berari eldu jako zoritxar ori. Eta berari lez, edozeñeri jazo leitekio gauza bera.

"MAGIC JOHNSON"ek, sendotasun eta adore aundiz, jakin izan dau gatx ikaragarri ori artu eta aurre egiten, bildurtu barik eta garrantzi asko kenduaz. Adituen ustez, jakabide orrek indar aundia emon leio jendeari, au, arazoaren aurrean jarri daiten.

SIDA or dogu, gure aldiko arazo larri ta aundia. Earvin Johnson'en jazoerak balio begigu zemai ori kontutan artuta, geure egoereagaz konturatu eta zentzutasunez jokatzeko mailla guztietan.

GASTAÑAGA'TAR JESUS

Basetxe giroa eder...
Eguzkia arpegira,
egun-sentia alaitsu,
itzez jatortzu gogora.

Lurra, ederra, ortzia,
danetik giza giroa,
zeru goietatik dator
abots maitasunezkoa.

Ametsezko ingurua,
ta zu, bertan, sarturik,
zeru albistea artzen,
pozez eta arriturik.

Geroztik, beti, jainkozko...
barne gurari bat zeunkan...
Euskalerrria argitu,
egiz, zuzentza bidean.

Jainkozko jakituria
maitasun itz bihurturik,
erriari eskein zeuntzan
askatasunez ondurik.

Nork emon eutzun gogo ori,
Nundik ar zendun indarra
biotz ori goritzeko
suagaz arturik garra...

Zeregin danen artean
ez egon ederragorik,
Jainko ta gizonak baiño
maitasunez alkarturik.

Lurra zerura begira
udabarrian lez lorak,
larros biur nai zenduzan
euskaldun seme-alabak.

Asaben izkuntz ederra
arri bitxiz sortua zan,
seme zurrak maite eben
beren izate egizkoan.

Ez beztuta, ez loituta
ez zenduan ikusi nai,
bitxiak eskein zentzezan
zuk ama euskereari.

MALAX-ETXEBARRIA TAR JON
"KALAMUA"

PAULIN

JOAN YAKU...

Kristo Errege egunean pozik eta osasunez ospatu izan genduan, adiskidetasunez, Larrean, Olerti-Eguna, eta arik egun asko etzala barri txar bat izan neban: Ebakuntza egin-da txarto egoala Bidaguren'dar Anjel olerkaria. Eta, gexoak geiagoa egin izan eutsonez, egun gitxi barru eroan eban erioak.

Gizon ixilla, zintzoa ta biotz onekoa genduan Anjel, eta gogo-gokoa euskeltzale ta olerkarien artean. Etzan barritsua ez alperreko autuetan zalea baia meresidu ebanari bere eritxia esaten zigurra ta zintzoa genduan. Semez Lumo'ko elizaldekoa zan eta euskeldun-uts-utsa. Sakonki ekian euskeraz; berak esaten ebanez Lekuona abadea izan eban euskel-irakasle, gaztetan, abadetzarako ikasten ebillan-da; guduak ausi eutsozan here amesak eta urte latz arein ostean, ezkondu egin zan Aiangiz'ko Antzosolo basetxeko Gardoki'tar Luzia'gaz eta arrezkero Gernikan (kalean) bizi izan zan.

Olermenaren jabe zanarren, zartzarorarte ez eban ezer idatzi izan. Seme-alabak asi ta ezi eta bearrari itxi ta bizikerea nasaitu ekionean asi izan zan olerkiak egiten.

Barru-miñezko olerkiak egiten izan dauz geienak eta amalaukoak egitea izan dau gogoko.

Bene-benetako olerkaria izan da, ba, Bidaguren'dar Anjel eta onenatariko olerkaria galdu dau bizkaierak eta euskereak.

Benetako olerkarien artean ezaguna ta gogokoa izan da Anjel; ixillik eta apaltasunez egin eta agertzen izan dauskuz here oler-lan ederrak.

Idazle zein olerkari ona izanarren, euskera lorriñez idazten ez ba-da, aintzakotzat here ez daroe artu egunkari, aldizkari ta alkartze-bideak: Izan daitekezanik bere ez. Baiña zarata asko dagienak, naiz-ta sasi-olerkari edo euskerea lorrintzen diarduen idazle kaxkarrak izan, edoietaraiño jaso daroez kedatz-arteak.

Diruak zirkintzen dauz euskera-gaiztoz diarduen euskel-sen bako sasi-idazleak; baiña egunen baten diruak gitxitu edo amaitu daitezanean, orduantxe ikusiko genduke zeintzuk direan beneta euskerea maite dabenak.

Euskera gaiztoz diarduenak, ez dauke euskel-senik eta benetako elertia ezagutzeko adimenik ez adorerik. Barreikarriak doguz oreitariokoak maiko direala saritutako olerkigiñak be, danak ez esatearren.

Benebenetako olerkari irudimentsua ta argia galdu dau, ba, euskereak eta guk, lagun on eta gogogokoa. Gizon on eta zintzoa genduan, ba, Bidaguren'dar Anjel.

Jainkoak beuko zeruetako egoitza aintzatsuan.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN'EK

MALASIN EUSKERAZ

Georg Schurhammer, alemaniar jesulagunak idatzitako "Xabier'tar Frantzisko'ren bizitza" irakurten nabillela, euskaldunentzat gauza bitxi eta jakingarri bat aurkitu dot.

Xabier euskal misiolaria, 1545-1547 urteen bitartean, eguzki aldeko Malasia ugarteetan ebillen Jesus'en Barri Ona zabaltzen, eta orduko lekuko edo testigu batek au diño: "Xabier danen laguna zan, eta bere izate maitagarriaz guztien biotzak irabazten ebazan.

Villalobos gaztelatarraren armadako 37 gizon eta soldadu Tidore'ko ugarteetan gelditu ziran betiko an biziten... Orregatik Tidore ugarteetan ango Raja Amir erregeak eta bere inguruko andikiak, gaztelatarrakin, euskaldunakin eta portugaldarrakin egunero izaten eben artu-emonagatik, gaztelera, portugaleraz eta EUSKERAZ be zerbait itzegiten ikasi eben".

Itzez-itzez Castanheda portugaldarrak diño: "Os principaes daquella ilha de Tidore sabem falar portuges, castelhao e antremetem Biscainho".

GOIKOETXEA IÑAKI S.J.

KREDOA

SINISTEN DUT

Sinistea beste batek esaten diguna, eta guk ikusi ez deguna, egi bezala artzea da.

Nere ama eta aita zein diran, beste batek esanda dakit. Nere amaren sabelean egondakoa izan arren, nik ez dakit nere ama nor dan beste batek esaten ez ba'dit.

Eskolan irakasleak esandakoa sinisten degu; bestela ez genduke aurrerapenik egingo jakintza gaietan...

Beraz nor edo nori sinistea bearrezkoa degu mundu onetan. Jainko-gaietan guk Jesus'eri sinisten diogu.

JAINKO AITA ZERU-LURREN EGILLEA

Mundu onetako gauzetan, berez ez da ezer sortzen. Azi bat bear da edo egille bat...

Gaur-egun jakintza munduaren sorreraino eltzen da, munduaren asieraino.

Asiera orreri Punto Zero deritza: orduan esplosio aundi-izugarria gertatu omen zan eta leerketa aretatik sortu omen ziran Uniberso osoa osatzen duten mundu eta indar guztiak.

Jakintza ez da Punto Zero orretatik aurrera joateko aña eta ortxe gelditzen da.

Baiña, Punto Zero orreri esplosio-indarra nundik datorkio? Ori da korapilloa, Jakintzak askatu ezin duena.

Jakintzalari askok usten dute Adimen argi-indartsu bat bear dala Punto Zero orren alboan.

Jakintzak egiten ez duena Moises'ek egin zuen. Eta guk egindako galdera orreri, berak erantzun zion Bibliaren asieran, Genesis deritzan liburuan.

Jainko Aita aalguztidunak egin zitun Zeru eta Lurra. Berak eman zion asiera Punto Zero orreri, ordulariari soka ematen zaion bezala, edo pila jarri, ibilli dedin.

Orretarako Jainkoa aalguztiduna bear du izan: aalmen eta indar guztiak dituen.

Baña, Jainko indartsu paregabe ori, guretzat Aita da eta Jesus'entzat ere bai. Ez, ordea, era berdiñean: Aita eta Jesus'entzat ere bai. Ez, ordea, era berdiñean: Alta Jesus izate berekoak dira; gu, berriz, seme-alabatzat artutakoak Jesus'eri esker. Onak erakutsi zigun Jainkoari GURE AITA deitzen.

ETA BERE SEME BAKAR JESUKRISTO GURE JAUNA

Jesus seme bakarra da, Aita bezala, Jainkoa dalako.

Jainkoa ez da izaki bakartia: beregan iru notin edo norki (persona) ditu, Aita, Semea eta Espiritu Santua.

Aitari indarra dagokio; Semeari jakinduria; eta Espiritu Santuari maitasuna; baiña, Irurak Jainko bakar Bat diranez, iru Norkiak (personak) berdiñak dira gauza oietan.

Berri auk ez dakizkigu geure jakinduriz eta arrazoiez, Jesus'ek esanda baizik.

Orregaitik sinismenezko gaiak ditugu.

Egi au Kristautasunaren egi berezia degu eta egi onetara ezin liteke eldu jakintzaren bidetik. Sinismeneko arazoa da.

Jesus'ek esanda dakigu Jainkoak, bakarra izanik, iru Norki dituela beregan.

Geuk ere (esate baterako, baba ez da berdin) badegu indarra, adimenjakinduria eta maitatzeko aalmena eta, alaz ere, gizaki bakar bat gera bakoitza.

Ez da berdin: argitasun bat billatzeko baizik.

ESPIRITU SANTUAREN INDARREZ SORTU ETA ANDRE MARIA BIRJIÑAGANDIK JAI O ZANA.

Au ere sinismeneko gala degu eta ez dago arrazoi utsez argitu eta probatzerik.

San Lukas ebanjelista medikua zan eta berorrek esaten dizkigu gai oneri seastasunak. Berdin izango zan gauzak beste era batera gertatu ba'lira eta Jesus beste gurtiok bezala sortu eta jai o ba'litz.

San Lukas'ek esaten digu ez zala ala gertatu eta Espiritu Santuak ernarazi zuela Amabirjinaren sabelean Jesus'en gorputza.

San Mateo'k ere antzekoak esaten ditu bere Ebanjelioan. San Joan eta San Markos'ek, berriz, ez dute ezer aitatzen.

PONZIO PILATOREN MENPEAN NEKALDUA, ILLA ETA OBIRATUA IZAN ZANA

Jesus'en Erria Erromatarren menpean bizi zan eta Erri orretako Gobernadorea zan Ponzio Pilato militar erromatarra.

Onak zigortu zuen Jesus eta gurutze batean josi, Judutarren apaiz-ek eta nagusiek beartuta bezala. Neke izugarri artean it zan Jesus Ostiral Santuko arratsaldeko iruretan. Andik gertu zegoen arrizko illobi batean sartu zuten; arri bizian egindako zuloa zan eta atarian arri borobil aundi bat ipiñi zuten, illobia itxitzeko.

Iruretan il eta seiretako illobian sarturik zegoen. Gorputza, gantzutu onoren, izara aundi batean bildu eta galartsu zuriekin bildu zuten gorputz osoa, momia baten antzera.

INFERNUETARA JAITSI ETA IRUGARREN EGUNEAN ILLEN ARTETIK PIZTU ZANA

Infernuetara jaiste ildakoak dauden tokira joatea da.

"Infera" itzak, latinez, azpian dagoena esan nai du, eta lur-azpian ildakoak egon oi dira. Eta, andik, "illen artetik", irugarren egunean bizirik irten zuen.

Ostiral-anatsaldez obiratu zuten eta igande goizean Jesus, andik irtenda, bizirik agertu zitzairen Apostolu eta Jesus'en laguntzaile ziran beste emakume batzuei, bere azken erakutsiak egin eta aginduak emateko.

Judutarrek beuren jai-eguna larunbatez ospatzen dute; musulmanek ostiralean eta guk, kristauok, igandean, egun orretan piztu zalako Jesus.

ZERUETARA IGO

Aizkeneko itzak eta agurra esan ondoren, bilduta zeuden egun batean, aide egin zien.

Onela zion: "Zoazte mundu zabalera neure Berri-ona zabaltzera eta neu egongo naiz zuekin munduaren aizkenerarte".

Geurekin dago bi edo iru bere izenean alkartzen geran bakoitze-ko; geurekin dago EUkaristian eta bere Elizan; gurekin dago beartsu eta naigabetuetan eta geurekin dago geure biotzetan maitasunaren bidetik.

ETA AITA JAUNGOIKOAREN ESKUIN ALDEAN JARRITA DAGOENA

Erregearen eskuin aldean bere lenengo Ministraria jartzen da, erregearen ondoren berak duelako agintaritzea.

Jesus bere Aitaren eskuin aldean jarrita egoteak ere orixe esan nai du: Aitaren ondoren berak dituela agintaritzea guztiak Zeruan eta Lurrean.

ANDIK BIZIAK ETA ILLAK EPAITZERA ETORRIKO DENA

Jesus'ek auxe agindu zigun: Lurra amaitzen danean, eta amaitu-ko da asiera izan duelako, orduan bera etorriko dala gizon -emakume guztiak epaitzeko.

Epaiketaren gaia lagun -urkoarenganako maitasuna izango da: Bearrean dagoen lagunari lagundu diogun ala ez; gose, egarri, billutsik, gaixo, kartzelan edo edozein ezbearretan dagoenari lagun-
du diogun ala ez; naigabeen dagoenari laguntzea Jesus'eri, berari, laguntzea da; "Zatozte, maiteok, betidanik zuentzako prestatuta dagoen nere erreinura, gose nengoen eta jaten eman zenidazuten... —Noiz?— Gose zegoanari egindakoan..." Ori egin ez duanentzako epaiketa latza izango da.

SINISTEN DUT ESPIRITU SANTUA

Jainko bakarrak iru Norki ditu. Irugarrena Espiritu Santua da. Bera da Aita eta Semearen arteko Maitasuna.

Espiritua maitasuna da. Eta Maitasun orrek eraginda egin gaitu Aitak, eta bere Semea bialdu digu mundura gure Salbatzaile eta Erosle.

Maitasunezko Espirituak darama Eliza aurrera; berak zuzentzen ditu gure animaren barruak eta bera degu lagun maite eta maitale.

ELIZA SANTU KANTOLIKUA

Eliza. Jesus'ek bere ikasleekin talde bat sortu zuen eta talde orren buru Apostoluak ipiñi zitun eta Apostoluen artean lenengoa, berriz, Pedro, gero Erromako Gotzaia izango zana.

Arrezkero Elizaren burua Erroman dago eta Aita Santua deritza.

Eliz-barruti edo Diozesis bakoitzean Gotzaia da buru... Jesus'en naia alaxe agertu zan. Eta, ala bearko du aurrera ere, Jesus'en Eliza izango ba'da, beintzat.

Santu. Eliza on santua da, bere sortzeile Jesus santua dalako, bere gidari Espiritua santua dalako, bere dotriña santua dalako, dituen sakramentuak santuak diralako... baña, ez eliztar guztiak santu diralako.

Pedrok, Elizan buru izan amen, Jesus ukatu zuen bildurrez; gero, ondo damutu zitzaion eta Jesus'ek ez zion nagusitasuna kendu...

Aita Santuak, Gotzaiak, apaizak eta kristau guztiak lurrez eta espirituz egiñak dira eta okerkeriak ere egiten dituzte. Eta aide orre-
tatik Eliza pekatari egiña da, eta guztiok aitortzen ditugu geure pekatuak eta guztiok bear degu Jainkoaren barkamena.

Katolikua. Katoliku itzak orokor esan nai du griegoz: guztiena eta mundu osoan guztientzako zabaltzen dena. Kristauak dira

Jesus'engoan sinisten duten guztiak; baña, kristau -katoliku gera Danentzako dan Eliza katolikuan gaudenak bakarrik.

SANTUEN ELKARTASUNA

Eliza Jesus'en gorputza da eta Jesus aren burua. Gu gera gorputz orren zatiak eta alkartuta gaude Eliza orretan, gorputzean zatiak dau-
den antzera.

Eta Espiritu Santua dabil gure artean, gorputz batean odola dabi-
llen antzera. Eta Berak alkartzen gaitu.

Nere osasunak eta nere santutasunak on egiten die beste zati guz-
tiei; nere okerkeriak, berriz, kalte.

PEKATUEN BARKAMENA

Jesus'ek, Jainkoa izanik, badu pekatuak barkatzeko aalmena eta indar on Apostoluei eman zien eta, auen bidez, Eliza osoari.

Ortarako sortu zan Penitentzia deritzan sakramentua: pekatuen barkamenerako.

Eta, orregaitik, biotzetik damutzen geranean, Jainkoak barkatzen dizkigu gure pekatuak.

ILDAKOEN PIZTUERA

Jesus illen artetik piztu zan eta, gure burua danez, geu piztuko gera arekin batera. Auxe da Jesus'ek agindu ziguna.

Egi au ere fedearen bidez dakigu. Geure buruaren indarrez baka-
rrik, ezin degu egi au lortu.

BETIKO BIZIA

Arraiñak, egaztiak, animaliak it da gero, betirako iltzen dira. Baña, gu ez gera betirako illik gelditzen.

Genre itxaropenak mundu berri bat eskeintzen digu, illunik gabea, gaitzik gabea, eriotzarik gabea. Gizon -emakumeen biotzetan aspaldikoa da itxaropen au.

Gure aurrekoek ere orain millaka urteetan zear, beuren ildakoei, gorputzaren ondoan, beste mundurako bear zizutzen lanabesak (arri-
koak), janak eta edanak, kutunak eta edergailluak ipintzen zizkien...

Esate baterako, Mari-zulo deritzan leizean, artzai bat eortzi zuten eta bere aldamentean bizitzan lagun zuen txakur zaarra ipiñi zioten, beste mundurako lagun, eta iru illebeteko arkuetxo bat.

Jesus'ek eskeintzen digu beste mundu zoragarri bat, zintzotasu-
nean berarekin bat eginda bizi ba'gera.

Bera degu, gaur da beti, Argia eta Bizia. Berarekin ez dago ez Illunik, ez Eriotzarik.

AMEN

Bi gauza esan nai ditu AMEN itz onek: Bat da ALA IZAN BEDI, oitotz bat esaten degunean. Ori da gure gogoa: eskatu deguna lortzea.

Beste esan-naia: ALA DA. Kredoa esaten degunean, orixe esan nai du: Guk sinisten degula Kredoa esando guztia. Baita Jauna artzen degunean ere, KRISTOREN GORPUTZA apaizak esaten digu-
nean, guk AMEN erantzuten degu: ALA DA.

ANES'EK

ALKARTEGOA EDO KOOPERATIBA

On Jose Mari'k, gazteak euren bide onenean ipiñi ondoren, ta gizon maillera elduten ziranerako, gura izan eban, langilleak, ELKARTE edo Laguntasun on baten jartea lana ugari ta ondo egin daiten.

Beargin ona izateko ARDURADUN izan bear dau, nagusi bat lez, eta onela pentsau bear dau: Egiten dotena NEURETZAT egiten dot, zer egin au aldanik onduen egin bear dot.

Nik ez dot bear nere aldamenen, iñor nire lana zelatuteko edo ikuxkatuteko. Onelan ASMAU eskero, orduan egiten da lan berezia ta ganera egiten diran tresnak, ondo atarako dira lantokitik.

Iñoren lepotik ez dau bizi bear lantokian.

ALKARGOAN danak dira JABEAK eta langilleak.

Danak, danentzako egiten dabe lana.

Oneik ziran gure JOXE MARI'ren ASMORIK sendoenak.

Arduradun ipiñi OLA edo egintza guztia, beeko maillatik gorengoraño, danak izan daitezcan BAT. Onela ZURITU edo Limurtzeko Arrasateko jentea, makiñetxo bat ibillera, itzal-di, alkarrizketa egin ebazan, on Joxe Marik, ta askenean, berak gura eban baiño, lenago, ipiñi eban Arrasate guztiak, nai eban MODURA.

Olako tokian ez dago EZIN IKUSIRIK bata besteari, nagusitik txikierañoak, lagunak dira, bata besteagaz ondo konpontzen dira eta orrelan lana BEKAIN bank bearra egitea, pozezkoa ta alaia da.

Elkarri lagunduz, danak batera, onelan egintza aurrerakadak egiten dauz, ez gero ikusiko dogun bezela bestaldean.

Emengo guda ostean jaso ziran guztiak izan ziran, orain jaso diranen OLEN antzekoak, bai Aretxabaleta'n eta bai Eskoriatza'n ta bertan Mondragon'en.

Orduan ola barrietan jente askok egin eban ONELA:

ALKARTEGOAREN izena ipiñi barik, batuten ziran, zerbait egiteko, familiko anai-arreba-gurasoak, edo senite tartekoak edo lagun ondo ezagunak, euren artean GORA BERARIK egon ez daiten.

Astegunetan bearra gogor eta ordu guztietan egiten eban lana goizetik gabera, ALKARTEGOAN egiten dan bezela.

An ez zan ikusten YOPURIK, danak NAGUSIKIRO egiten eban euren zeregifia, poztasun eta alaitasun aundienagaz, urrunera ikusten zan arek ebiltzala bozkario.

Aretxabaleta'n OLAK geienak olakoak ziran, eta nai eta sasoi txarrak izan guztientzako ateraten eban MOZKIN ede-

rra ta jente areik bai kalean, bai etxean ta edonun, ondo baiño obeto agertzen ziran.

An gure Joxe Mari joan baiño lenago, OÑARRIA ipiñita egoan lurralde orretan eta gero oso samurra izan zan gure maixu barrien asmoak norberaganatzea.

SINDIKATOKO LANGILLEAK

Badakigu, ango eta emengo inguru guztietako Egintzak, beste modu baten JASOTA dagozala.

Nagusia, nagusi da, eta langillea da beste MAILLA baten, emen ez dago batasunik, laguntasun aundirik be ez, bata besteentzako.

Geinetan batak bestea ezin dabe ikusi. Alkarrekin bizi bear lanean eta Ian egin bear. GORROTOA daukie bata bestearentzat.

Ezin dira KONPONDU sendi baten bezela.

ZERGAITIK ONELA?

Emen bakoitzak dauko bere ZUDU edo ONURA; batzuk lan gitxien egin eta irabazi gura dabe. ILDURA gitxien egin da.

Nagusiak nai aldanik geien egin daitela, beretzat MOZKIN edo obari geiago izan dain. Nagusiak gura dau dirua ugari izan daitela bere ondasunak geitzeko, ba orretarako ipinten dau besteen eskuetan lana.

Askotan egon bear ZUUR danen jokabidea on ona izan dain orrela ez bada, ta danak alegin egiten ez badabe PORROTA etorri leike, UZTEL batzukaitik, nagusien ASMO guztiak lurpera arin, ondo ZELATUTA ez ba'dabil.

Emengo beargiñak illeen askenean nai dabe SARI ona izan daitela euren eskuetan, ta gaiñeko gauzak ez dautsee ardura ezertxo ere.

Ez dakie nagusiak OLATIK irten da gero, sarritan, egunero biarko lana topau bear dauela, edo egindako tresnak zelan saldu bear diran jakiteko buru AUSKETA asko edo ugari sarritan etorten yako.

ARA EMEN, ORAINGO ADIBIDE BI NEGARGARRIAK

Gazteizko OLA baten, eta ola on ondo baiño obeto doiana orain artean, zer jaso zan ondiño ez da illebe, URRI-LLAREN askenego egunetan izan dalako.

Langillea, KIMIKOA zan, berak bakarrik egiten eban bearra, gela baten.

Egun batzuetan jarraian, aurkitu eban ordezkioak, lotan iru edo lau bidar.

Orduan ZUZENDARIAK pentsatu eban bera aldatzea, beste gela batera, lagunak egoazan toki batera, itzartuta ibili

daiten, lanean PROTXUA atera dagian, baiña bere leengo SARIAZ eta bere MAILLEA kendu barik.

Onela gauzak beargin UZTEL orrek, sindikatokoa zelan zan, SALATU eban, bai nagusia eta be bai ondorengo batzuk.

Paper andi baten ipiñi ebazan IZKI izugarriakin eta kalean euren etxe aurrean zabaldu papera ugari, esaera au ipiñiaz:

Barriro ipinten ez banozue neure gelan, AUZIRA eroango zituek danok, ta kalteak egingo dautzuedaz.

Olako KEIÑADAKIN eta olako jenteakaz, Zer nai dozu egin?

Olako jente uztelakin emen egoera onetan ezin geinke AURRERAKADARIK egin. Lotara joan lanera eta berak ERRAZIOA ondiño?

Olakorik ez da izaten ementxe baiño, jente zori txarrekoetan baiño. Ondo gagoz datorren edo urrengo urtetik aurrera, Merkatu Barruan ondo ibilteko.

Ori TRUFA egitea da jenteari, erriari, ta beargin guztiei. Olako asko egon ezkerero lantoki ori PORROTERA doa zuzen.

Azkenean jausiko gara ITXAS ondo -ondoraiño, geiago ez jaikiteko tokira.

BIGARREN ADIBIDEA: Au be oraintsu jazokoa.

Eskola Publiko baten, Bilbo'n bertan izan da, eta ganera, Bilbo'ko, lekurik onenean. Ama bat eldu da eskolara edo ikastetxera eta bertako atezaiñari, modu onenean, diñotso:

ZU MESEDEZ LAGUNDUKO DAUSTAZU, ELBARRITU-BURDIA IGONGAILLURA SARTZEN?

Gura atezaiñak: ORI EZ DA NIRE EGINBEARRA.

Emakume gixakea, zelan edo alan, joan zan gora.

MOZOLO orrek ez dau ikasi oraindiño, illaren azkenean, ama ixaja orren diruaz ordaintzen dautsoela?

Olakorik ez da izaten ementxe baiño.

Azkuntza obeagorik ikasten ez badogu galduta gagoz.

IKERLANA FAGORREAN

ERAKUNTZA bide onena itxiteko, eta bera barik, ez zala AURRERAPENIK izango, berak ipiñiko lanean, orain datoza moduan gauzak.

Orduan esan eban: EMEN IPIÑI BEAR DOGU IKERLANEAN JENTEA.

Jakiña ori egiteko dirua bear zan. Orren bildurrik be ez zegoen.

Berak sortutako KUTXAN egoan naiko orretan asteko.

Orretarako toki oso egokia aurkitu eben, AZATZAKO AUZOAN. AZATZAKO lautaran egoan orain dala AMAIRU GIZALDI jasotako "CASA FUERTE" esaten eutsoen etxe bat, BERE IZENA "OTALA" Zarra zan baiña, bere ORMAK sendoak zabalak ziran, ta Udalako atxak baiño gogorragoak. Tokia ezin ohea. Lautaratxo baten, toki argi ta garbi. IXIL-IXILLEKOA, kutxada barik, aize garbikoa ta ganera, udan nai izan ezkerero, bustialdi bat urrean artzeko tokian: bertan edo berealaxe, aurkitzen da URKULUKO ur lekua.

Orretarako, jakiña, etxe zar ori barriztu egin bear zan. Bai barriztu eta polito ipiñi be. Orma zabalak, bai kanpo aldetik

eta be bai barnean, oso apainduta ipiñi ei eben, denbora gixian. Laister gertatu zan bertara joateko EUN JAKINTSU GAZTE INGURU euren lan ederrean asteko.

An jarraitzen dabe, euren IKERLAN ori, jota kee.

Iru mailletan bezela ipiñita daukie etxe ori.

Lenegoan Sarrera, oso egoki, eskaratza, eta jantokia, bai etxe koentzako ta be bai kanpo koentzako.

Bertan garajeak, berebillak eukiteko ardura barik.

Bigarren maillan BI ARETO izugarriak, bakoitza larogei notin ondo eta nasai egotekoak.

Aren ondoan gela txikiagoak, ondo baiño obeto gertatuta eta lasai egon leiteken edozein jente.

Lan ori egiteko IZTEGI naiko ugari ta libururik egokie-nak eta aurrengoak orretarako.

Mundu onetan lan egiteko, toki egokia izan bear da, ta etxe inguru ori oso ondo lorategiz ipiñita dago.

Inguru guztian bedarrez beteta, jarlekuak ugari, zugatzak bakanak bananduta zelai guztian, lasai jarlekuetan jarrita, aize artuaz, edozein gai ikasi leiteken toki.

Etxe orretara joaten ei dira erbestetar asko, zelako aurre-rapenak dagozan ikusten. Olakoak, ta ain ederto jarrita toki gitxitan aurkitzen dabez.

Etorren ei dira ikusten, ikasten, erosketak egiten, itaunduten eta abar.

Lan bikain onegaitik eta bertako tresnagaitik, ezagutzen da Arrasate'ko erria eta be bai LENIZKO arana.

Lenago burdiñe zarragaitik AIPATUTEN zan tokia, orain OSPATSU da bertako lan bikaiña eta ederragaitik.

Gure Fagorreko toki eder ta bikain ori, ON JOXE MARI'k, ERDIETSI edo eskuratu eban guztia, izugarrizko eragozpenak ipiñita gero. Orretarako gizon ori BIOZTUN eta ausartua izan zan, ezek ez eban atzeraketan, bere USTE guztia ipiñita eukalo JAINKOARENGAN orregaitik dauko bere alde MEREZIMENDU izugarrikoa.

BESTEEN USTEAK

Gizona da GIZONA, AZKUNTZAGAITIK geiago, jaiotetxeagaitik baiño.

Azkuntzagaitik bakarrik, gizona eldu leike, GIZON BEREZIA izatera. GIZONA egiten da GIZAKI edo gizakume, AZIERAGAITIK.

JENDATZEAK aurrerakada bizkorrak egiten dauz, AZIERAKO EGITEAGAITIK.

Datorren illean egun ospetsu batzuk daukaguz, eta lerro onein bitartez, OPA IZATEN dautzuet, irakurle guztiei, GABON egun zoiotsuenak, zuen sendietan, JESUS'en eta Birgiña Maria'ren bitartez.

Agur. datorren URTERA-ARTE.

Bilbao'n, 1991 garreneko AZAROAREN 27'an.

ISIDOR ETXEBERRIA
(G.B.)

JAUNGOIKOAREN **BILLA**
MAGDALENA CASTAÑER DE
GIRONELLA, FERNANDO DIAZ
PLAJA, JOAN GICH

MADALENA CASTAÑER DE GIRONELLA.
ETXEKOANDREA

"Txikitan lekaimen ikastetxe batean ezia izan nintzan. Ango legeak estuak ziran: otoitzak, mezak, agurtzak... azken bakoak.

18 urtekin, guztiz asperturik, erlejiñoko gauza guztiak baztertu nebazan. Baiña beti be Ebanjelioen idaztia pozik irakurten neban... Eta orain azkenean auxe garbi ikusi al izan dot: gizon batek –Jesus'ek-arma eta diru barik, gogorkeri barik, munduan egin dan iraultzarik andiena egitea, guztiz eziña dala... Jesus gizon utsa baiño zerbait geiago da...

Nire bizitzan askotan bide bi onein artean aurkitu naz: sinistu ala ez sinistu... Baiña azkenean ez-sinistek urtenbide bako azken batera naraola ikusi dot, eta Jesusengan sinistek bakarrik ni salbatu naikela".

FERNANDO DIAZ PLAJA.
BERRI-EMOILLEA

"Jaungoikoagan sinistea ez da, nire ustez, zientziatzko egietan oiñarritzen. Sinistea maitemintzen –enamoratzearen– antzeko da. Mutil bat ez da neska batekin maitemintzen aurretik buruaz kalkulatu, neska orretzaz maitemintzeak zer onik ekarriko deustan... Mutil gazte bat alako neska bategaz maitemintzen da, biotzak on eskatzen deutsalako, neska on barik ezin bizi dalako...

Beste aldetik, gizon guztiak eta aide guztietakoak sinistu izan dabe, gure gaiñetiko zerbait edo norbait ba dala... Zeru goitik, Jaungoikoaren begiekin begiratu ezker, bai dala gauza barregarria –nik ala uste dot– iltzera galduta dagoan gizon arroak, bere jomuga eta gerokoaren jabe dala, pentsatzea!

Jesus Jaungoikoa ete dan itanduten deustazu? Jaungoikoa ez balitz, izan bear leuke. Guk gizonok Jaungoikoarengana eroango gaituen norbaiten bearra

dogu... Urrutiko Jaungoikoari, itzala eta bildurra deutsalagu, baiña Jesuseri –ezagutu ezker– nai ta naiez, maitasuna emongo deutsalagu...

Jesus'en dotriña baiño ederragorik ez da munduan orain arte irakatsi... Baiña tamalez guk, Aren ikasle garala diñogunok, ez dogu gure maisuaren irakatsia gure eguneroko bizitzan mamitzen".

JOAN GICH. ARTE-KRITIKOA

"Jaungoikoagan sinisten dodan itanduten deustazu?"

Mundu zabal eder guzti au, eguzki-izarretatik asi, eta lore txiki eta mikrokosmoseraño, ain ederto egina, ustekabez, iñork eratu barik, berez egin dala, nik ezin dot buruan sartu.

Jesus Jaungoikoa dala sinisten dodan?

Jesus'en pertsona eta izatea ain gorengoa, bere nagusitasun morala ain danen gaiñetikoa da, ezin da beste gizonen bardiñean jarri. Jesus'en dotriña hedonista edo atsegiña emotekoa izan balitz, gizonak pozik artuko eben; baiña Jesus'ek agindutakoa beteten ain aldatz gora izanik, gizonak onartzea ulertu eziña egiten jat.

Chesterton idazle ospetsuak ederto esan eban: "Kristo'k mendiko itzaldian garbitzen ez dauan xaboia eskeini eban. Garbitzen ez dauan xaboia zelan saldu? Mirari on Jesus'ek egin eban. Kristo'ren dotriña gure instintoen ain aurkako izanik, aide guztietan zabaldu da. Bai al da mirari arrigarriagorik?"

IKASLE BERRIENTZAT

TARTEGARRIAK



VIVN

ITZ-SALDA

Amu itz billatu bear dozuz

A	N	E	S	K	A	U	O	P	T	E
B	Z	S	I	J	M	U	R	I	J	M
Z	T	A	I	D	N	A	H	S	M	A
A	S	M	O	A	R	I	T	U	E	K
N	E	U	H	R	P	K	T	F	D	U
A	F	L	A	S	G	I	X	U	A	M
E	M	H	S	Z	L	X	A	S	T	E
T	A	B	D	S	R	T	Z	T	E	A
Z	L	S	H	M	K	I	S	P	I	J
A	D	M	O	Z	G	I	Z	O	N	A
G	O	R	P	U	T	Z	I	Z	B	B

•z)ndJoi i `ou[sn
i.n? `poi lpntu
`atsr, `uozt `a l.llllt:ma `ulsau
`dl\l3d'1b'ZV

AOLKUAK

LUR-SAGARRAK NON GORDE


Lur-sagarrak ez dira otzgailluan gorde bear. Or lur-sagarrak zimeldu egiten dira eta daukien almidoia, gozagarri bihurtu ten da. Ostantzean otzgailluan egondako lur-sagarra baltzitu egiten da gero lapikoan eta sartagiñan sartukeran.

ZELAN GARBITU BOLIGRAFOAREN IDAZTURA EDO (TINTA)

Idaztura jantzi gaiñera jausten ba jatzu, au egin bear dozu. Lenengo idaztur edo (tinta) gaiñean algodoi apur bat jarri. Ondoren zikin-azpitik beste algodoi bat ipiñi. Bigarren algodoi au alkooletan bustiko dozu eta apur-apurka alkoolak idazturra urtu eta goiko algodoian itziko dau.

Birritan egin hear dozu au. Gero jantzia garbituko dozu.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa